

4. KANALAK

Gure ludotekaren zerbitzua bezeroengana iristeko hainbat metodo erabiltzen ditugu. Komunikazio kanalak eta salmenta kanalak bereiziko genituzke. Alde batetik, guk erabiliko ditugun komunikazio kanalak gure ludotekaren webgunea, Instagrama eta ahoz ahokoa izango dira, adibidez, gurasoen artean zabaltzen diren gomendio eta balorazioak gure ludotekarekiko.



Instagram plataforman, gure ludotekako zerbitzuaren kontu bat sortuko genuke. Bertan, egiten duguna eta dugun eskaintzaren azalpena argitaratuko genuke, eta horren bidez, gure zerbitzua bezeroengana iritsiko litzateke. Instagram plataformak hurrei eta gurasoei gure zerbitzuen berri ematea ahalbidetuko gaitu.

1.irudia

Webgunea berriz, gure zerbitzuaren inguruko jakin-mina duten bezeroentzat izango da, haren berri duten pertsonak gehiago jakin dezaten.

Ahoz ahoko kanala, berriz, ez da gure esku egongo den zerbait, gurasoek elkarri gure zerbitzuaren berri emango diote, gomendatuz eta balorazioa eginez. Halere, gure zerbitzua jasotzeko nahia izanez gero, hau jaso aurretik galdetegi bat bidaliko litzaike. Horren bidez, gure berri nola jakin duten jakingo genuke, eta herritar gehiagok gure zerbitzuaren berri jakitea sustatu ahalko genuke, beste zabaltzeko modu batzuk bilatuz. Hau kontuan hartuta, gure zerbitzuari aldaketak egingo genizkioke, guk nahi dugun bezerora ondo iritsi dadin, eta ikusgarritasuna izan dezan gure proiektuak.

Gure zerbitzuaren salmenta, berriz, ludotekan bertan egingo da, hau da, bezeroak informatu ondoren bertara joan beharko dute gure zerbitzua jaso ahal izateko. Bertan, dena azalduko zaie, eta galdetegiaren berri emango zaie. Hau bete ondoren, gure zerbitzuak eskaintzen dituzten baliabide eta jarduerak azalduko dira; haurren jarduerak, familia gehiago gonbidatzeak dituen onurak (pegatinak eta hilabetero zozketatuko den saskia), kuotak, egingo diren irteera motak, hitzaldiak, formakuntzak, Euskararen sustapenari eta Euskal Kulturari ematen diogun garrantzia, dugun helburua, ditugun oinarri pedagogikoak... eta hau guztia bertan jaso ahal izango dute.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

1.irudia → AA-rekin sortutako irudia . Chat gpt-rekin sortutako irudia (2025). Deskribapena: lau haur basoan buelta bat ematen. Hemendik hartu da: <https://chatgpt.com/>